

1999ko urtarrilak 14

Ez dakit musean, txar amorratua naiz karta jokoan oro har, eta xakean ere baldarretan baldar. Kartarik eta fitxarik gabe ere, mahaitik eta taulatik at, bizitzaren karta eta xake jokoetan txarrenaren pareko nauzue: amodio lehietan, politika eztabaidetan, prestigio eta pribilegio ehizan... Ez dut balio A gezur, gezur ttiki edo egia nire (edo gure) beharretara egoki moldatua esanez B egia niretzat (edo guretzat) petralgaizto kaltegarria modu sinesgarrian ezkutatu, ahantzarazi, saihestu edo gezur itxuraz mozorrotzeko, C helburu nire (edo gure) ustez justiziazkoaren bidea zabaltzea xede, D garaipen niretzat (edo guretzat) handiari begira betiere. Aurrez aurreko topaketa zintzorakoa da nire joera, eta aurrez aurreko topaketa zintzoan kausitzen ditut adiskiderik minenak eta garaipenik ederrenak.

1999ko urtarrilak 24

Politikako albisteak kiroletakoen antzera hartzen ditut, gehienetan behintzat. Gero eta txikiagoa da, niretzat, arlo bateko eta besteko berrien arteko aldea. Bada bietan lehia bat batzuen eta besteen artean, edo lehia batzuk nahi bada: elkarren aurka borrokan ari dira, politikan nahiz kiroletan, hainbat talde, multzo, klase, ideologia edo dena delako. Politikako albisteak hartzean, ni lehian ari diren talde horietako batzuen aldekoa sentitzen naiz, eta horien mesederako diren berriek poztu egin ohi naute, beti-beti ere ez bada bai gehienetan, baina, azken batean, kirol berriekin gertatzen den legez, irudipena dut berri horiek nire eguneroko bizitzan eraginik ez dutela izango, ez zuzen eta bat-batekorik eta ezta zeharkako eta epe luzekorik ere. Ez dut behintzat eraginik izango dutelako kontzientziarik izan ohi. Tarteka-marteka izaten diren kontu larri samar batzuen kasuan edota protagonistekiko gertutasun afektiboagatik garrantzi berezia duten albiste batzuen kasuan izan ezik behintzat, politikako albisteak ez dira kiroletakoak baino askoz garrantzitsuagoak edo erabakigarriagoak izaten niretzat, eta aspegarriagoak bai, aitzitik, gehienetan. Ez da harriztekoa, beraz, kirol informazioak gure gizartean duen arrakasta eta garrantzia.

Irratian mintzo zelarik, Juan Garziak zioen orain hurrengoan euskal literaturan egiten diren aurrerapausoak pozez hartzen dituztela abertzale askok, ez ordea aurrerapauso horiek haien irakurketak aberastuko dituztelako, aurrerapauso horiekin herria irabazten sentitzen dutelako baizik, euskal kulturak, aurrerapauso horiei esker, itxura sendoagoa izaki, prestigio handiagoa...; haren bihotzeko futbol taldeak partida irabazten duenean zaleak “irabazi egin dugu” esaten duen gisa bertsuan, Garziaren iritziz, abertzale horiek euskal kulturaren aurrerapausoekin “irabazten” sentitzen dira, itxura hutsean geratuz ordea, hots, horretaz zuzenean gozatzeko edo aberasteko asmo txikienik ere gabe. Kiroletan bezala, kulturaren ez ezik politikan ere asko dago, nire ustez, horretatik: itxurazko garaipen hutsal benetako mamirik gabekoak, beti bestek lortutakoak, goian kokatutakoak, horretarako hautatu eta izendatutakoak, behekoen –hots, gure– zuzeneko parte-hartzerik gabe eta behekoentzat –guretzat–, azken batean, onura funtsezkorik ez dakartenak.

Jakina, parte-hartze zuzenerako aukerarik ere geratzen da, nahi izanez gero, kemenik eta animorik izanez gero, eta ez diot oraindik erabateko ukorik egiten horri: manifestazioak, kontzentrazioak, sinadurak, gutunak, artikulak, salaketak, ekitaldiak antolatu... Baina oso gutxitan dut sentitzen nire parte-hartze horrek inolako eragin zinezkorik izan dezakeenik. Pneumatiko gutxitxo zulatzen dute nik –edo guk–

politikako albistegiaren bidean ezarritako txintxetek. Gero eta zabalagoak dira, gainera, bide horiek; gero eta azkar eta atzemangaitzagoa albisteen iragatea; gero eta gogor eta zulagaitzagoak jantzen dizkieten pneumatikoak, pneumatiko beti beltz gero eta beldurgarriago horiek.

1999ko otsailak 15

Hurkoak espero duena baino urrats bat aurrerago egon behar dugu beti. Badaezpada ere. Eta badaezpadarik gabe ere bai.

Hurkoak uste duena baino maila bat beherago gaudela uste behar dugu beti. Badaezpada ere. Eta badaezpadarik gabe ere bai.

1999ko otsailak 17

Zorion handieneko uneetan beti etortzen zait burura zorionaren laburtasuna, beti etortzen zait burura bizitza gozamenaz eta oinazez osatzen dela, atseginez eta nahigabez, eta heriotza duela, ezagutzen dugunaren neurrian behintzat, azken jomuga. Irakurri ditudan narrazioen eta ikusi ditudan filmen erruz izango dela uste dut. Izan ere, eleberrietan eta filmetan bizitzan baino trinkoagoak dira gozamenaren eta oinazearen arteko loturak; eleberrietan eta filmetan modurik lizunenean elkarren ondo-ondoan, pega-pega eginda, paratuta baitaude gehienetan atsegina eta nahigabea, eta baita bizitza eta heriotza ere.

1999ko otsailak 27

Zalantza

Zalantza bat dut, ea argitzen didazun:
zergatik zaude nigandik hain gertu?

Zalantza bat dut, ea argitzen didazun:
zergatik zaude nigandik hain urrun?

Zalantza bat dut, ea argitzen didazun:
non nago ni benetan?

Zalantza asko ditut,
ezin izango dizkit inork argitu.

1999ko martxoak 1

Erakusleihen indarra

Etengabeko ekinzalea zen, neurriz kanpoko, geldiezina, batetik bestera etengabe, saltsa guztietan leporaino sartuta, beti beste guztiei ere ekimen guztietan parte hartzeko adore ematen... Harik eta egun batean, ez dakit zehatz-mehatz zenbat urte zituela, manifestazio batean parte hartu ondoren beste mobida bateko bilerarako bidean, denda bateko erakusleihan besaulki bati begira geratu zen arte. "Hau niretzako egina dago", esan zuen bere artean, konturatu ere egin gabe, ez zekien zergatik. Egundak hartaz geroztik, hantxe eserita ematen du eguna, irakurtzen, telebistari begira eta erdi lotan.

1999ko martxoak 22

Hiregan apurka-apurka gozotasunez hiltzen hasteko nahi hinduket, nahi izatekotan, inoiz izango haudan ez dakidan alaba edo semea.

1999ko martxoak 26

Bizi: ibili eta ezin aurreratu, begiratu eta ezin ikusi, ikertu eta ezin ikasi, esan eta ezin adierazi, ezin inoiz, gogotik ahalegiugatik ere, ezertan asmatu. Eta gero sekula deus aurreratu, ikusi, ikasi eta adierazi gabe hil, ibiltzeko, begiratzeko, ikertzeko eta esateko irrika higatuari eta aurreratzeko, ikusteko, ikasteko eta adierazteko ilusio hutsalari azkeneko unera arte estu helduta.

1999ko martxoak 29

Nire koldarkeria

Ez diot neure buruari koldar izateari uzteko eskatuko; izutu egingo ninduke neure buruari hori zinez, itxurakeriarik eta faltukeriarik gabe, eskatze hutsak, neurri horretarainokoxea da gaitza. Koherentzia eskatzerik ere ez dut nahi, badituelako horrek bere arriskuak: lotuegi sentitzekoa, neure burua salduta ikustekoa zenbait egoeratan...; ortodoxia zanpatzaile izatera hel liteke koherentzia koherenteegi bat. Ziniko ez izatea, horixe izango da akaso neure buruari zinez eta funtsez eska diezaiokedan bakarra.

1999ko apirilak 16

Non saltzen dituzte erloju balaztadunak?

1999ko apirilak 19

Bob Dylan baino gazteagoa naiz, Lou Reed, Neil Young, Patti Smith, Mick Jagger eta David Bowie baino gazteagoa; ni baino zaharragoak ziren Jim Morrison, Janis Joplin eta Jimi Hendrix zenduak ere, Johnny Rotten eta Sid Vicious... Nahita ere, ez daukat, beraz, zahar izaterik.

1999ko apirilak 29

Goiz batean, amets nahasi baten ondotik itzartzean, bat-batean, tunel batetik irtetean bezala, argi-argi, bizitza. Neurea. Aurreratua, jokatua eta erabakia neurri handi batean, egina, higatua, atzera-bueltarik gabe alferrik galdua, nola eta zergatik jakin gabe, inkontzienteki, arduragabeki. Zordun sentitzen naiz, neure bizitza neurekin zerikusirik ez izatera eraman izanaren errudun. Gregor Samsa daukat gogoan, haren larrimina. Zenbaki batzuk datoz gero gogora, jaio nintzen urtea eta gaurko data; toki izenak, etxe atari batzuk, muinoak eta hodeiak ortzaizean; lehengo nahiz oraingo gertuko jendearen aurpegiak, irri samur batzuk... Ez dut askorik behar izan neure burua errugabetzeko. Argi dago, bai, nekez asma nezakeen bizi izan naizen baino hobeto bizitzen... Neure barruko ilunpeetan gorde da berriro ni benetan naizen labezomorroa.

1999ko maiatzak 3

Nire koldarekeria

E Kezkatua nauka, oso, gerrak. NATO Serbia gainera bonbak jaurtitzen hasi zenetik, lehen baino askoz ere estuago eta desosegu handiagoz lotu natzaie irratietako orduroko albistegiei, Kosovo eta Serbiako berrien aiduruago Lizarra-Garazikoen baino.

Hildakoen kopuruari eta larritasun fisikoari dagokionean, egun Balkanetan bizitzen ari den gatazka ez da azken urteetako odoltsuena, eta beharbada ezta gaur egun munduan pizturik eta sutan dagoen gerrarik gogorrena ere. Ez da, beraz, hildakoek, zaurituek eta iheslariak sentiarazitako errukia benetan desosegatzen nauena. Kasu honetan, nire kezka pertsonalagoa da, egoistagoa, eta horrexegatik da, ez beste ezergatik, larriagoa.

Gerra honetan, neuk nahi gabe bada ere (baina baita neuk horren kontrako ezer askorik egin gabe ere, egia esan), sartuta nago, eta neuregandik gertu ditud, etxe ondoan, krimen larrien konplize aski zuzenak, orain artean beti “datorren tokitik datorrela” indarkeria gaitzetsi izan duten horietan berak (NATO hiltzaile; PP, PSE-PSOE, EAJ, RPR, PSF... laguntzaile!).

Ez da hori ere, dena den, nire desoseguaren jatorri nagusia. Ez beti hain modu zuzen, argi eta gordinen, baina antzeko kontuak ikusi dira beste gerra batzuetan ere. Lehen isilpekoa izaten zen osaba Sami emandako sostengua: errietarik egin gabe nahi zuena egiten uzten zitzaion eta kito. Orain agerikoa da sostengua, horixe da alde bakarra.

Ni benetan kezkatzen eta desosegatzen nauena Kosovoko gerra zabaldu eta hirugarren mundu-gerra pizteko arriskua da. Ohitua nago injustiziaren eta krimenaren bidez gidatutako mundu anker eta odoltsu bateko kide pribilegiatua izaten, hiltzailez eta konplizez inguratuta bizitzen. Ohitua nago odolez zipiritindutako albistegi lazgarrienen amaieran kirol berriak entzuten, alegia deus ez. Baina neure izate apal eta xume hau arriskuan ikustea besterik da, oraingoz arrisku hori, itxura batean behintzat, aski urruna izanagatik ere.

Ez da oso jasoa eta esperantzarria nire ikuspegia, eta inozoa ere irudituko zaio bati baino gehiagori, baina, nire aldetik, hipokrisia zatekeen gai honi beste mutur batetik heltzea.

1999ko maiatzak 6

Zure iritzia jendaurrean agertu ondoren, gerta liteke berri txar izugarri bat –bakarra, ehunka edo milaka izan daitezke hildakoak, berdin dio– pozgarri izatea zuretzat, zuk jendaurrean emandako iritzia indargarri den ber.

1999ko maiatzak 20

Elkartasuna S.A.

“No one would remember the Good Samaritan if he'd only had good intentions. He had money too.”
(“Ez zen inor samariar onaz oroitu asmo onak baino izan ez balitu. Dirua ere bazeukan.”)
(Margaret Thatcher)

Kale ertzean eskean ari zen mozkor itxurako agure herren bati dirua emateko gelditu nintzenean izandako burutazioekin hasi zen dena. Nik emango nizkion txanpon ziztrinekin errukarri hark deus gutxi aurreratuko zuela pentsatzeak tristatu egin ninduen. Orduan, eskalari dirua eman barik, diru hura loterian jokatzea otu zitzaidan, saririk

jasotzekotan irabazitako dirua behartsuen artean banatzeko gero. Horrek behintzat norbaiti benetako laguntza emango ziola pentsatu nuen, nik emandako txanponek eskale hari eman ziezaioketena ez bezalako laguntza, alegia. Ez zitzaidan saririk egokitu orduko hartan, baina handik aurrera egun hartako burubideari lotu nintzaion: eskaleei eman barik, loterian jokatu dirua, irabazirik izanez gero irabaziak behartsuen artean banatzeko. Argi zegoen txirotasunaren arazoari konponbidea bilatzeko ahaleginean askoz ere jokabide burutsuagoa zela hura, kalean aurkitutako eskaleei berehala edozein huskeriatan –ardotan kasurik gehienetan– xahutuko zuten diru pixar bat ematen jarraitzea baino.

Halako batean, azkenik, sari handi bat egokitu zitzaidan eskaleentzat jokatu ohi nuen loterian, hamar familia behartsuren bizimodua zuzen-zuzenean eta behin betiko konpontzeko bestekoa bai gutxienez. Gaiari buruz sakon hausnartu ondoren, ordea, tristatu egin ninduen nire karitateak, azken batean, deus gutxi konpon zezakeela jabetzeak. Zer da, bada, hamar familiaren diru arazoan konponbidea txirotasunaren arazo latzaren aurrean? Adabaki ezin kaskarragoa baino ez, jakina.

Horregatik, dirutza harekin enpresa batzuk sortzea erabaki nuen, diruari ahalik eta etekinik handiena atera nahirik, ez nire mesedetan, jakina, txirotasunaren arazoa konponbideratzen ahalegintzeko asmoan urrats handiagoak eman ahal izateko baizik. Diruak diruari dei egiten dio egungo gure gizarte honetan, eta behin diru kopuru jakin batzuetara helduz gero, zuhur eta trebe jokutzen jakinda, diruaren hazkundera handia eta azkarra izan daiteke, hazkunde esponontziala bilatzen saia daiteke, hazkunde zinez harrigarria. Dударik gabe, horixe zen egin nezakeen onena, horixe zen behartsuentzat eskuratutako diruari eman niezaiokeen erabilerarik zintzo eta solidarioena.

Negozio kontuetan aski iaioa naizenez, eta aholkulari onak ere bilatu ditudanez, hazkunde zinez handia izan du harrezkero nik behartsuentzat pilatutako kapitalak. Bitxia da, paradoxikoa: talde ezkertiar, ekologista eta antikapitalistak nire enpresen aurka agertu dira –isuri ustez toxikoak salatuz, soldata igoerak eskatuz eta gisa horretako beste kontu batzuei helduz–, kokurrentziaren legeari itzuri egiterik ez dagoela ohartu gabe eta –hori da mingarriena– nire benetako eta sakoneko motibazioa giza elkartasuna dela ahaztuta, nahita ahaztuta, jakina, ez oharkabean, talde horien etika aski badaezpadakoa izan ohi da-eta. Amets egitea ondo dago, oso polita da. Norberarentzat hain polita den hori, alabaina, besterentzat kaltegarri izan daiteke batzuetan. Bai kasu hauetan behintzat. Munduko txirotasunaren aurka eta justiziaren alde borrokatzeko, jokabide benetan praktikoa eta eraginkorrek behar dira, ez norberaren burua ederresteko baino balio ez duten ameskeria antzuak. Ezkertiar, ekologista eta antikapitalista batzuek inozotasunez jokatzeko dute horrela, baina haien buru egiten dutenek maltzurkeria doilorrez. Arriskutsuak dira oso.

Batzuetan pentsatu izan dut heldua bide dela nik sortu eta kudeatutako enpresen irabaziak zuzen-zuzenean txirotasunaren konponbiderako erabiltzen hasteko tenorea. Baina ez litzateke, nire aldetik, jokabide zuzena izango nire gogoari men egitea beste kontu garrantzitsu batzuk aintzat hartu gabe. Ez zaio honelako kontuetan bihotza buruari gailendu behar. Eutsi egin behar zaie norberaren apetak gidatzen dituen tentazioei. Diru asko dirudi eskuetan dudanak; eta asko da, izan ere. Baina deus gutxi konponduko nuke oraindik ere nire kapital osoa behartsuen artean banatuz gero. Ez al litzateke negargarria egun handi batean txirotasunaren aurka erabili ahal izango den dirua etengabeko hazkunde esponontzial ikaragarrian biderkatzen ari diren enpresa batzuen emanari mugak jartzea? Ez negargarria bakarrik: krimen barkaezina! Itxitako enpresa horien lekua beste enpresa batzuek hartuko lukete orduan, eta enpresa horien jabeek eta kudeatzaileek berentzat hartuko lituzkete irabaziak, ez behartsuen arazoan konponbiderako. Kontzientziak ez lidake inola ere horrelakorik egiten utziko.

Txirotasuna oso gaitz larria da, oso hedatua mundu osoan, eta gaitz horren agerpen guztien aurrean deus gutxi da oraindik ere nik kudeatutako enpresa guztietakoak batuz osatutako kapitala. Kapital hori hazten ahalegintzen jarraitu beharra dago, egunen batean dena erro-errotik konpondu ahal izango delako itxaropena gidari hartuta. Egia esan, etsia nago nik ezin izango dudala, tamalez, ezta ehun urte bizi izanda ere, kapital hori behartsuen artean banatzea zentzuzko eta zilegi izango den eguna ikusiko. Horregatik, enpresen kudeaketa nire oinordekoen eskuetan uzteko asmoa dut, haiek ere, nik bezala, munduko txirotasunaren aurka egin dezaketen guztia egin dezaten.

Tristatu egiten nau munduko txirotasunaren arazoa erabat eta behin betiko gaindituko deneko eguna ezin izango dudala ezagutu eta ospatu pentsatzeak, baina ziur naiz helburu solidario horren alde egin dezakedan guztia egiten ari naizela, eta, niretzat, horrek ematen duen barne bakeak, sinetsiezadazue, benetan diotsuet, mundu osoko aberastasun guztiak baino balio handiagoa du.

1999ko maiatzak 22

Hire bila nabilen

Hire bila nabilen
desio ezin asean zuloan.
Hire bila nabilen
gau eriazen lantxuridan.
Hire bila nabilen
amore emateko amorratzen.
Hire bila nabilen
neure burua galduta.
Hire bila nabilen
hi aurkitzeko beldurrez.

Nahiago niken, bai,
hi inoiz ez ezagutu izana.
Hire bila nabilen
hi aurkitzeko beldurrez.

1999ko ekainak 25

Bustita

Euria ari du kalean.
Denontzat da euria,
milioika tanta erortzen nonahi.
Baina tanta bakar batzuk dira,
ez asko, ehunka batzuk akaso,
ileak, muturra eta eskuak
bustitzen ari zaizkidanak.
Zer pentsatuko ote dute
ustekabeen nireganatutako tanta horiek?
Harritu egingo bide dira
ni bezalako animalia harrigarri baten larruan,
patuaren burubidea ezin ulerturik

eta madarikatzen seguru askorik,
zerbait hobearen esperoan direnez eroriak.
Berdin dio.
Busti egiten naute,
nahi ez badute ere
ni aintzat hartu beharra dute,
nire larru sinesgaitz hau bustitzea egokitu zaie.
Ez dakit zer, baina banaiz.

1999ko ekainak 30

Bilanak

Azken funtsean
bilan guztiak negatiboak dira,
derrigorrez, ezinbestean,
baita ekimenik egoki,
arrakastatsu eta ederrenenak ere,
dena amaitu egiten baita,
xahutu, ahitu, akitu, hil.
Horregatik, bizirik jarraituko badugu,
martingala beharrezkoa dugu,
inondik ahal dela,
inoiz ere ez heltzea
ezeren azken funtsera.

1999ko uztailak 19

Inon izatekotan

Inon izatekotan hemen naiz,
hitz aldrebes-nahi hauetan,
bizia iraintzeko saio hauetan,
poesian.
Gainerakoan ez naiz
izan beharrezkoa baino,
ezinbeste huts.

Hau ere, alabaina,
itsuskeria munstrokara hau,
matxinada lirdingatsu hau,
poesia,
lehen uste ez nuen arren,
neuk hala nahi ez izan arren,
bizia da.

Zakar, aldrebes eta gaiztoena ere,
inon denik poeiarik pozoitsuena,
odol garbi barneratzen du
biziak bere zainetan.

Izatekotan heriotza dateke
biziaren aurkako borrokan
poesiaz haratagoko arma bakarra.
Baina hori ere hain du berea biziak!

* * *

Poesia nia da; nia oihuka, orroka, oldarrean; nia biluzik, izan beharraren, ezinbestearen, historiaren, herriaren, familiaren, adiskideen, inguruaren arropak urratu eta erauzita; nia, poeta, gizakiarengandik aske.

1999ko abuztuak 16

Erridikulua

Nire oinei begiratu eta erridikuluak iruditzen zaizkit: behatz oker horiek, lodiolodia mutur batekoa, ñimiñoa bestekoa, eta gainerakoak bi horien tartean harrapatuak. Baina ez bakarrik nire oinak: nire galtzarbeak, zakila eta barrabilak, sudur luze hau, belarrietako zimur bihurriak, belaunetako zein ukondoetako konkorrak... Bai forma erridikuluak! Zinez gauza erridikulua da gorputz biluzi bat, bere bihurgune, ile-gune eta zulo erridikuluekin, eta are erridikuluagoak dira zulo horietatik noizean behin jalgitzen zaizkigun askotariko isurkiak.

Gorputz erridikulu hori arropaz estaltzeak ez du ezer konpontzen, arropa erostean erridikulu baiteritzet aukera guztiei. Ez dago erridikuluari ihes egiterik janterakoan ere. Orain jantzita ditudan galtzak, esaterako, erridikuluak dira guztiz, bakero tipiko eta arruntak; ez zatekeen, dena dela, erridikulu txikiagoa bakero autentikoagoak janzteak. Erridikulua zatekeen halaber sport galtzak janzteak, luzeak zein motzak, edo tergalazkoak, edo edonolakoak, berdin dio, erridikuluak ziratekeen gainerako aukera guztiak ere. Nire alkandora, nire betaurrekoak, nire barruko elastikoa, nire galtzerdiak, nire galtzontziloak... denak dira erridikuluak. Erridikulu nago, barregarri behetik hasi eta goraino.

Erridikuluak dira inoiz esan ditudanak oro, erridikuluak dira halaber nire isilaldiak. Erridikulua da testu erridikulu hau aldizkari beste guztiak eta beste edozein bezain erridikulu honetan. Erridikulua zatekeen ez idaztea ere, erridikuluari ihes egiteko grina eta esperantza ezin erridikuluagoz hartutako erabaki erridikulu bati jarraituz. Erridikulua da erridikulua ez egiten ahalegintzea. Erridikulua da erridikulua ez egiterik badagoela pentsatu edo sinestea. Erridikulua da, irakurle, artikulu hau irakurtzen hastera bultzatu zaituen interesa. Erridikulua da idatzi berri dudana esaldi hau ere, guztiz erridikulua, erridikuluki erridikulua.

Beti dut erridikulua naizelako eta erridikulu nagoelako irudipena, eta inguruko guztia, mundu guztia, unibertso osoa, erridikulua delakoa, erridikulua baino ezin izan daitekeelakoa, erridikulua dela bizitza bera bere osotasun oso eta erridikuluan. Betibetikoa dut erridikulu unibertsalaren kontzientzia. Zer ez da, izan ere, benetan eta sakonean, guztiz erridikulua?

(Ikus 89-II-26-b.)

1999ko irailak 2

Maiz aipatzen ditugu idazleok era honetako egunkarrietan edota prentsako artikuluetan inguruan entzundako kontu gure ustez absurdu eta erridikuluak. Ez dakit hori benetan bidezkoa den. Erridikulua lasai eta lekuko sudurluze eta deserosoen beldurrik gabe egiteko askatasuna murriztea krimen larria da. (Ikus 99-VII-16.)

1999ko irailak 16

Ez adiorik, Kora

1

Neska berezia zen Kora, gutxi bezalakoa, eta berehala antzematen zitzaion hori, ikuste hutsarekin nahikoa baitzen ohartzeko. “Neska hau ez da normala”, esaten zuen maiz Koraren amak, eta edonori amak arrazoia zuela pentsarazteko modukoak ziren Koraren begi urdin sakon eta misteriotsuak, bizitasun betekoak. Koraren aurpegian bi argizulo urdin haiek nabarmentzen ziren ororen gainetik, eta argizulo haietatik irten ohi zen haren arima zintzo eta biluzia.

Ia hamasei urte zituen arren, askoz gazteagoa ematen zuen Korak, umetxo bat. Aita-amekin bizi zen, alaba bakar, hiri barruan baina lorategi handi batek inguratutako etxe dotore batean. Aita aktore ezaguna zen, itzal handikoa, antzerki emanaldi eta film garrantzitsu askotan parte hartzen zuena. Oso gutxitan izaten zen etxean, eta etxean izaten zenean ere oso gutxitan benetan pozik eta lasai. Ama ere gaztea zen oso. Ardura handiz zaintzen zuen itxura. Beti izan zen oso emakume ederra, eta ziur zegoen edertasunari zor zizkiola bizitzan bereganatutako gauza on guztiak, bere zoriontasunaren zutabeak. Bizitzaren gerran norberaren alde borroka egiteko arma ezinbestekotzat zuen edertasuna Koraren amak, eta, ahal zuen bitartean, hari eusteko prest zegoen, kosta ahala kosta.

Kora, aitzitik, ez zen bere itxuraz arduratzen. Eta, izan ere, ez zen ederra. Ezta itsusia ere. Berezia zen, gutxi bezalakoa, bere begi harrigarrirei esker.

Hitz gutxiko neska zen Kora, barrenkoia oso, eta ez amak eta ez aitak zekiten askorik beren alaba bakarraren arazo, ardura eta bizipoz nagusiei buruz. Garai batean kezka handiak izan zituzten gurasoek Koraren uzkurtasun neurritz gaineko hura zela-eta. Askotan komentatzen zuten harrigarria zela alaba beren aldean hain ezberdina izatea, hala ama nola aita jendetasun eta sinpatia handiko pertsonak baitziren. Hainbat psikologorekin ere mintzatu ziren gai horren inguruan baina, konponbiderik ez zegoela ikusirik, azkenerako alabaren isiltasun sakon hartara ohitu egin ziren, eta pentsatu zuten denborarekin, adinean aurrera egin ahala, Kora aldatu egingo zela, alaiago, biziago eta komunikatiboago izaten hasiko zela pixkanaka-pixkanaka. Pentsamendu lasaigarri horiek beren kezka nagusietara itzultzeko aukera eman zieten.

Kora ez zen ia etxetik irten ere egiten. Izua zion jendeari, eta ez zuen benetako adiskiderik. Eskolako lagunekin zegoenean ez zuen jakiten haiei zer esan, eta eskolatik irten eta gero nahiago izaten zuen bakarrik egon, inori ezer esan beharrik izan gabe, etxean zituen liburu ugariari begira. Paraje ederren eta era guztietako animalien argazkiz betetako liburuak ziren. Liburu haiei esker, mundu osoko parajeak eta animaliak ezagutzen zituen, era guztietakoak, eta sekula ez zitzaion amaitzen paraje eta animalia gehiagoren berri izateko gogo. Liburuetako paraje eta animalia haiek ziren Koraren begi urdinen pozik handiena, poz bakarra ia-ia, egunaren argitan.

2

Baina gaua zen Koraren benetako bizipoza. Gauean goiz oheratu ohi zen, artean ere hiri osoa telebista aparatuen inguruan piztua zelarrik. Eta, ohean sartuta, amets sakon

eta bizieta murgiltzen zen. Gaueko amets haietan egiten zuen benetan eztanda Koraren bizitasunak, egunean zehar haren begi urdinei distira ematen zien bizitasun hark. Ikusmira sineskaitz eta miragarriak sortzen zituen, ametsetan, kolore eta figura ugariz apainduak. Gauero amets bat sortzen zuen, guztiz berria, ordura artekoak ez bezalakoak, herri berria, mundu berria, eta han bizi izaten zen bera ere, Kora, era guztietako edertasun liluragarri inguratuta.

Ortzaize luzeetako zeru gorriak agertzen ziren batzuetan Koraren ametsetan. Zeru haien azpian egiten zuen hegan, beheko parajeei begira: milaka koloretako baso sarriak, zuhaitzen gainean hegan era askotako txori harrigarriak, tarteka aintzira batzuk, urdina bata, morea bestea, horia aurreraxeagokoa... Ozeano amaigabeak ere izaten ziren, eta begi handi eta biribileko arrain argi batzuek aspaldiko itsaso haien historiak kontatzen zizkieten, hitzik gabe, ametsetako magiaren indar hutsez, Korari.

Behin zuhaitz handi-handi batean bizi zela egin zuen amets. Inon diren eta ez diren zapore eta kolore guztietako frutak zeuden zuhaitz haren adarretatik zintzilik, hain zen aberats eta tantaia. Inork irudikatzerik ere izango ez lituzkeen fruta zoragarriak ezagutu eta dastatu zituen han Korak. Zuhaitz haren gainaldera igota, itsaso urrun bat ikusi zuen, oso-oso urruna. Ezin zen nola ikusten zen ere ulertu, hain zegoen urrun. Eta are urrunago, askoz ere urrunago, itsaso zabal haren bestaldeko ertzean, bera zegoena bezalako beste tantai aberats bat ikusi zuen, begietara, jakina, ttiki-ttiki agertzen bazitzaion ere, hain zegoen urrun. Eta zuhaitz ezin urrunago haren gainaldera igota begi urdineko neska bat zegoen, handik –urrun-urrun-urrundik, ttiki-ttiki-ttiki–, berari begira.

Iratxo petral eta purrustalari batzuekin batera, enara baten begiaren barruan bizi zela amets egin zuenean ere, oso zoriontsu izan zen Kora. Enarak etenik gabe egiten zuen hegan. Haren begien barrutik, mundu handi-handi bat ikusi zuen Korak. Mila urteko hegaldia egin behar izan zuen enarak Korak mundu hura osorik ezagut zezan.

Mundu fantastiko haien gainean hegan egiten zuten doinu leun eta magikoek girotzen zituzten Koraren ametsak. Goizean ezin izaten zuen zehaztu zer musika tresnarekin zegoen egin musika liluragarri hura. Koraren munduko hotsek jatorri ezezaguna zuten. Inork inongo tresnaz joa baino gehiago, ametsetako izadi oparoak berak sortua zirudien musika hark. Eta lurrin zoragarriak ere izaten ziren bazterretan, ezin jakin nondik sortuak.

Kora zoriontsua zen beti bere ametsetan. Ametsetan ez zuen sekula ezereen kezkarik edo beldurrik izaten, bazekien ezerk ezingo ziola ezpainetatik irria kendu. Zoriona eta edertasuna ziren beti nagusi kolore, doinu eta lurrin zoragarri betetako mundu haietan.

3

Baina Kora esnatu egiten zen. Mundu magiko haiek galdu egiten ziren goizero, eta esnatu ondoren, egunaren argitan, Kora ez zen ia-ia bizi ere egiten. Ezer gutxi jaten zuen, beti nekez eta gogorik gabe, eta ez zuen egun osoan zehar ezer esaten. Gauaren zain ematen zuen eguna, lotaratzeko ordua noiz helduko, bere ametsetako munduan barnaratzeko irrikitan.

Goiz batean, animalia handi eta ttikiz, itsusi eta ederrez betetako mundu batetik itzuli berri zelarrik, hodeitxo txuri leun batzuek ziprztindutako zeru urdinari begiratu eta bere amets bateko zeruaren antza hartu zion Korak. Etxetik irteteko gogoak piztu zion horrek.

Koraren aita, ohi bezala, ez zegoen etxean egun hartan. Ama, balkoitik begira, poztu egin zen alaba zeru argi haren azpian paseatzen ikustean, ez baitzen maiz gertatzen hori. Pentsatu zuen alabaren aldaketaren zantzua zela hura, itxaropentsua zalantzarik gabe.

Bere ondoan pasatzen zen jende guztiari begira-begira zihoan Kora. Inork berarengan erreparatzen ez bazuen ere, arreta handiz begiratzen zien guztiei, eta guztiei buruzko kezka sentitzen zuen. “Zoriontsuak izango ote dira?”, galdetzen zion bere buruari. “Zer amets egingo ote dituzte gauetan?” Haiekin hitz egiteko eta haiek ezagutzeko gogoia sentitu zuen. Orduak eman zituen inguruan pasatzen zirenei begira, haien inguruko kontuak irudikatzen etengabe.

Gizon betaurrekodun lodi samarra pasatu zen Koraren ondotik, besazpian egunkaria eta ogia hartuta. Gizon hark etxean emaztea eta bi alaba zituela irudikatu zuen Korak, eta gizonak egunkaria lasai irakurtzea nahi zuela, behin eta berriro beren jolasetan parte hartzeko eskatzen zioten alabei kasurik egin gabe. Emakume zaharra ikusi zuen aulki batean eserita, bakarrik, bere kasa hizketan. Emakumea senar zenari mintzatzen ari zitzaioala irudikatu zuen, senarra hantxe zuela sinestuta, ondoan eserita. Neska bat ere ikusi zuen, bere adin berekoa gutxi gorabehera, jostailu denda bateko erakusleihoari begira. Ez zion aurpegia ikusi, baina neska hura triste zegoela irudikatu zuen, hegan egitea gustatuko litzaiokeelako eta inola ere ezin zuelako amets hori gauzatua ikusi. Neskari laguntzeko gogoia sentitu zuen Korak, eta pentsatu zuen gustura gonbidatuko zuela bere ametsetako batera, han ez zuelako arazorik izango nahi bezala hegan egiteko.

Joera hori berria zen Korarengan. Etxera itzuli zelarik, zerbait aldatua zela sentitu zuen. Baina ez zekien zer. Nahastuta eta aztoratuta zegoen. Zergatik jakin gabe, pozkarioa zuen barruan, baina baita kezka bat ere, gau hartan bere ametsetako mundu liluragarria hautsi egingo ote zen susmatzen zuelako. Ez zekien zergatik, baina irudipen horixe zuen.

4

Gauean kolore askotako tximeleta handi baten gainean hegan egin zuen Korak, kolorez eta lurrinez aldatzen ziren zeru zoragarrietan barrena, tximeletaren hegalean mugimendu mantsoekin bat egiten zuen doinu leuna barneratzen. Beraz, loak hartu aurretik, zergatik jakin gabe, susmo hori izan bazuen ere, ez zegoen hautsia Koraren ametsetako mundu liluragarria, ezta hurrik eman ere.

Kolore askotako beste tximeleta bat ikusi zuen, bera zeramanaren antzekoa, hura ere begi urdineko neska txuri bat eramaten, eta gero beste bat, eta gero beste bat. Aurrerago, urrunean lehenik baina gero eta gertuago, tximeleta multikolore gehiago ikusi zituen, baina haien gainean ez zegoen begi urdineko neska txuririk; haien gainean, begi gorriko mutil moreak zeuden, begi marroiko neska berdeak, mutil urdinak, horiak, neska gorriak, grisak...

Harritu egin zen Kora. Bere ametsetan ez zen horrenbeste gizaki izan ohi normalean. Landareak, animaliak eta iratxoak ugariak eta askotarikoak izaten ziren, baina pertsonak urriak beti. Ume bakan batzuk agertzen ziren noizean behin, baina urrun beti, beste mundu batean edo beste dimentsio batean baleude bezala. Gau hartako ume haiek guztiak, ordea, bere ametsetako mundu fantastikoan zeuden bete-betean, Korarengandik gertu, zeru garbi beraren azpian eta kolore askotako aintzirek ziprztindutako baso naro beraren gainean, bakoitza tximeleta banatan hegal egiten, doinu gozatsu bera entzuten, lurrin zoragarri bera usaintzen.

Korarekin hizketan hasi ziren umeak. Amets batean inork hitzez ezer esaten zion lehen aldia zen. Zirrara handia eragin zion horrek, egun argiko bizitzan ere, esna zelarik, inor gutxik esaten baitzion ezer Korari. Gainera, egun argiko bizitzan esaten zizkioten kontu urri haiek arruntak eta hutsalak izaten ziren guztiak, oso interes gutxikoak, ez ume haiek esandako kontuak bezala. Tximeletaz betetako haran eder bati buruz

mintzatu zitzaizkion umeak Korari. Han bizi omen ziren haiek, beste ume askorekin batera. Hara eraman zuten Kora, tximeleta gainean.

Zurezko etxola ttikietan zuten aterpea eta etxea koloretako umeek, eta etxola haietako batean sartu zuten Kora, atsedean har zezan. Izara ezin leun eta gozoagoz jantzitako ohe ttiki batean etzanda, Kora bere pentsamenduak ordenatzen saiatu zen. Ez zen lan erraza. Aurreneko aldiz, nahastuta eta aztoratuta zegoen amets batean. Ez zen, haatik, gaizki sentitzen, ezta benetan kezkatuta ere. Pixka bat lasaitu zelarik, leku hura eta ume haiek ezagutu izana pozgarria zela pentsatu zuen, hala lekua nola umeak zoragarriak ziren eta. Pentsamendu lasaigarri horretan murgilduta, loak hartu zuen emeki-emeki, eta ametseko etxolan loak hartu ahala esnatu egin zen hiriko etxeko ohean.

5

Bezperan bezala, goizean kalera irten zen berriro ere Kora. Aurerantzean egunero kalera irteten hasiko zela pentsatu zuen. Norbaitekin hitz egin nahi zuen, benetako adiskideak izateko gogo bizia zuen. Baina gaueko ametsa ez zen aski izan jendearekin harremanak izateko zuen beldurra eta ezintasuna gainditzeko. Etxera itzuli zelarik, hiriak bere ametsetako paradisuaren antzik batere ez zuela pentsatu zuen. Etenik gabe hirian hara eta hona bere ondoan zebiltzanek ez zuten Korari buruz ezer jakin nahi, presa handia zuten gehienek, lehenbailehen konpondu beharreko arazo larriak. Adierazkortasunik gabeko aurpegi haien jabeak baino askoz nahiago zituen Korak ametsetako lagunak, tximeleten gainean hegaldatzen ziren koloretako ume zoragarriak.

Jaio zenez geroztik igaroak ziren hamasei urteetan ezagutu zuen jendeari buruz gogoeta egin zuen. Aitona doi-doi ezagutu zuen; jatorra eta atsegina zirudien, baina aspaldi hil zen. Aita etxetik kanpo zen ia beti, eta etxean zenean are okerrago, dena arazoa izaten baitzen haren inguruan: amarekin sesioan aritzen zen, eta bere lankide guztiei buruz purrustaka. Ama bere edertasunari eusteko borrokak obsesionatuta bizi zen, horixe zuen kezka nagusi eta ia bakarra, eta Korarengana hurbiltzen zen bakoitzean bazirudien haren begi urdinek izutu eta uxatu egiten zutelara, begi haien distiran misterio beldurgarri baten zantzuak agertuko balitzaizkio bezala. Eskolan ez zuen Korak benetako adiskide bakar bat ere. Aparte eta isilik egon ohi zen beti ikasgelan, baita beste guztiak oihuka eta algaraka hasten zirenean ere. Ikaskide batzuk, neskak gehienak, saiatuak ziren Koraren adiskide izaten, baina haien ahaleginak hutsalak izan ziren beti. Errukiturik bezala etortzen zitzaizkiolako susmoa zuen Korak, eta izutu egiten zuen haiek berarengandik espero zutena emateko gauza ez zela izango pentsatzeak. Huts egiteko beldurrez, ez zuen inori ezer esan edo eman beharrik izan nahi. Irakasleetako bat, Mari andereñoa, maitagarria iruditzen zitzaion, baina harentzat Kora ikasle bat gehiago baino ez zen, hainbat eta hainbat ikasleren arteko bat besterik ez, “D gelako atzealdean esertzen den begi urdineko neskato isila” besterik ez.

Kolore anitzeko tximeleten haranera lerratu zitzaion berriro ere gogo Korari. Tximeleta haien gaineko umez oroitu zen. Hiriko jendea erabat ahaztea erabaki zuen. Ez zen berriro irtengo etxetik, hantxe geratuko zen, bere paradisuarekin ametsetan. Benetako mundua ametsetakoa zela erabaki zuen, eta esna zegoenean, egunaren argitan, ametsetan zegoela. Horrenbestez, une hartan, egunaren argitan, ametsetan ari zela pentsatu zuen, amesgaizto batean murgilduta, baina aurki esnatuko zela, benetako egun berri baten argitan, tximeleta gainean hegaldatzen ziren koloretako umeek atsedean har zezan utzi zioten zurezko etxola ttikian.

6

Ohi baino ilusio handiagoz sartu zen Kora hiriko ohean, eta, berak nahi bezala, berehalaxe zegoen tximeleten gainean hegaldatzen ziren koloretako umeen haraneko zurezko etxolako ohe ttikian. Hantxe esnatu zen, ume haiek inguratuta. Haietako batzuek paseatzera eraman zuten, tximeleta baten gainean hegan, leku, kolore eta ñabardura guztiak alaitasunez nahasten ziren leku liluragarri hura ezagutuz zezan, doinu magikoen eta lurrin zoragarrien topaleku harrigarria.

Gau hartan Kora ume haiek eta ume haien mundua ezagutzen hasi zen. Asko ziren, ezin konta ahala. Paradisu zabal hartako bazter guztietan zeuden. Kolore konbinaketa infinituak sortuz, banaka, binaka, hirunaka edota multzoka egin ohi zuten hegan tximeleta gainean, beren haran zabaleko leku berri eta liluragarriak ezagutzen etengabe, eta baita beren haranetik kanpokoak ere, hots, Koraren ametsetako mundu liluragarriak. Kora oso pozik sentitu zen han, bera bezalako ume haiekin. Mintzatu egiten zitzaizkion, zaindu egiten zuten, maite egiten zuten. Gau hartako ametseko ordu urrietan, egun ugari bizi izan zituen Korak umeen haranean, egun argi, zirrargarri eta bete-beteak.

Ume asko ezagutu zuen han, kolore guztietakoak, eta haien artean bazen bere begi urdinak samurtasun bereziz begiratzen zituen neskato gorri bat, Dana izenekoa. Danaren larru gorriaren distirak kilika berezi eta eutsiezina sentiarazten zion barruan Korari, eta Danarekin egun argiko bizitzan sekula irudikatu ere egin ez zuen harreman bat izateko gogo grinatsua sentitu zuen, bere ametsetako munduen edertasun eta lilura izango zuen maitasun handi, bizi eta erabateko bat, arimakoa eta gorputzekoa.

Tximeleta beraren gainean elkartzuta, bidaiari luze bati ekin zioten Korak eta Danak. Amaierarik gabeko munduak ikusten zituzten beren azpian, baina haiei begira baino denbora gehiago ematen zuten elkarri begira, isil, samur, zoro. Elkarri musu ematen hasi ziren. Musu arinak ziren, ametsetakoak. Elkar besarkatu zuten, estu-estu, tximeleta gainean iraulkatu ziren elkarri lotuta, bat egin eta urtu egin ziren, biluzik, espazio amaigabe maitasunezko tanta xume bat izatera heldu ziren, unibertso hartako doinu eta lurrin liluragarriak lagun zituztela. Sekula baino zorionsuagoak ziren.

Musuka, elkar besarkatzen, elkarrekin urtzen, unibertso amaigabe hura zeharkatzen jarraitu zuten, tximeleta gainean beti. Ezagutzen ez zuten leku harrigarri batera heldu ziren horrela. Porlan eta harrizko bloke handien gainean zebiltzan hegan. Bloke haien arteko tartetan milaka eta milaka izaki zebiltzan batetik bestera, eta baita burdinazko kutxa gurpildun batzuk ere: autoak. Handi-handi egin zituen harridurak Koraren begi urdinak. Koraren hiria zen hura!

7

Hirian, kolore askotako tximeleta bat zebilen, kalez kale jende artean. Umeen haranean erraldoia bazirudien ere, tximeleta hura ttikia zen hirian, eta Kora eta Dana are ttikiagoak, ia-ia ikusezinak, tximeleta haren gainean hegan. Zein ttikia zen ezin sinetsita zegoen Kora, tximeleta hiriko kaleetan zehar hegaldatzen zen bitartean.

Koraren etxera jo eta sukaldeko leihotik zehar haraxe sartu zen tximeleta. Etxean zehar hegaldaldi labur bat egin ondoren, Koraren gelara sartu zen azkenik, eta han Koraren ama eta aita ikusi zituzten, Koraren ohearen inguruan biak, negarrez. Ohe gainean, Kora bera zetzan, Koraren gorputza ohiko neurrian, zurrun, zurbil eta hotz. Hilda zegoen, begi urdinak itxita.

Harritu bai baina izutu ez zen egin Kora bere gorpua ikusita. Izurik ez zen haren ametsetako mundu liluragarrian. Gurasoak kontsolatzeko gogoia sentitu zuen. Inoiz baino zorionsuagoa zela esan nahi zien, amaierarik gabeko zoriontasun betean bizi zela. Baina, horren gertu zituen arren, guztiz ezinezkoa zen. Ezin izango zuten ez ikusi eta ez entzun, hain zen txikia haien aldean.

Tximeleta ganean hegan, Koraren gelatik irten ziren Kora eta Dana, eta etxetik eta hiritik ere irten ziren gero bi neskatoak, eta planeta hartatik urruntzen hasi, poliki-poliki, presarik gabe. Kolore guztietako unibertso amaigabeetan bidaiatzen jarraitu zuten, doinu magiko eta misteriotsuen lilurapean beti, unibertsoak ezin ikusizko kolorez betetzen zituzten lurrin zoragarri aldakorak barneratzen. Elkarri musu eman arte begiratu zioten elkarri, isilik, Korak eta Danak, elkar besarkatu arte eman zioten musu elkarri, bat eginez urtu arte besarkatu zuten elkar... espazio amaigabea maitasun tanta xumea izan arte.

1999ko urriak 12

Zorroztasun zehatzenez zuzen-zuzen gauzaturiko topikoekin egiten dugu topo batzuetan, harrituta.

1999ko urriak 27

Nik aspaldi susmatu bezala,
egia zen, beraz, ez zaretela.
Edo bai, izan bai, zer edo zer edo,
baina deus gutxi orotara,
hutsaren hurrengo huts.

Neureak nau hala ere arduratzen
zuenak baino gehiago.
Neu ere ez naiz,
garrasi hauei lotuta
gaua erdi-erdiatik urratu nahi antzuan
batzuetan zeozer naizela uste arren.

Ez baita deus
garrasi hau gauaren erdian.
Ehiztari txar baten tiro galdua.
Kantu bat mila bihotzaren urragarri.
Lurrikara bat eta milioika hildako.
Inork ikusi edo sentitu gabeko istripua.
Gerra oso bat, luzea eta zabala.
Ahuntzaren gauerdiko eztula.

Amaitu da,
edo amaituko,
ezer izan gabe,
inoiz izan gabe.

1999ko azaroak 6

Ni gehiago naiz

Ni gehiago naiz.
Begiratzen diozuen lekutik begiratuta,
ni gehiago naiz.

Nire tua urrunago heltzen da,
nire puzkerrak ozenagoak dira.

Ni gehiago naiz.
Ez da erraza nire mailara iristea.
Putzuak zapaltzean zipriztina indarrez
eta ezin zakarrago zabaltzen du nire autoak,
sistema anker asmatu berri baten bidez.

Ni gehiago naiz.
Ez duzue inoiz nire parera heltzerik izango.
Ezin dotoreago lurperatuak ditut hilak,
teleaparailu bana dute nire seme-alabek,
ikaragarri handiak dira nire prostituten titiak.

Ni gehiago naiz.
Eta, begiratzen diozuen lekutik begiratuta,
beti izango naiz gehiago.
Ozenagoak dira nire korrokadak,
urrunago heltzen da nire erraien kiratsa.

1999ko abenduak 15

Ez dago erridikulu puska bat gabeko pozik. Inongo pozik gabeko erridikuluak dira benetan saihestu beharrekoak. Erridikuluaren beldurrik gabe betiere. (Ikus 99-IX-2, 99-VII-16 eta 89-II-26-b.)